LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2013ko ABENDUAREN 5ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2013ko abenduaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Jon Tejeria Otermin
I gor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen dute: Aritz Usandizaga Larrañaga eta Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
   - **2013ko azaroak 7an egindako ohiko bilkura**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Olatza baserriko Etxe-azpiko sorotik, 3.643,10m2 segregatzeko baimena eskaera, Azpiazu baserriko terrenotatik, 6.922,09 m2 segregatzeko baimena eskaera eta bi hauek batzeko baimena eskaera, J.B.S.C eta J.M.A.**
4. **M.C.G. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
5. **Urbeltz auzoko 39 eskubian terrazako errepide aldean dagoen barja igotzeko baimena eskaera, I.B.**
6. **2013ko azaroaren 19ko 41/2013 Foru Dekretuaren babesean, tokiko enplegu planari laguntza gehigarria emateko programan sartzeko onespena, hala bada.**
7. **2013ko azaroaren 19ko 40/2013 Foru Dekretuaren babesean, Tokiko ekonomiak dinamizatzeko, tokiko inbertsioak bultzatzeko planean sartzeko onespena, hala bada.**
8. **Erniozale Kultur Elkarteak, 2012 urtean antolatutako zortzi herrien arteko ibilaladiari dagokion kitapenaren onespena, hala bada.**
9. **Fakturak eta ordainketak.**
10. **Beste batzuk.**

**11. Erregu, galderak eta mozioak.**

**.../...**

***LEHENENGO PUNTUA***
**ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- 2013 urteko azaroaren 7ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

***BIGARREN PUNTUA***
**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik ez dituela ebazpenik eman, berri ematen du Idazkari-kontuhartzaile andreak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

***HIRUGARREN PUNTUA***
**OLATZA BASERRIKO ETXE-AZPIKO SOROTIK, 3.643,10m2 SEGREGATZEKO BAIMENA ESKAERA, AZPIAZU BASERRIKO TERRONOTATIK, 6.922,09m2 SEGREGATZEKO BAIMENA ESKAERA ETA BI HAUEK BATZEKO BAIMENA ESKAERA, J.B.S.C. ETA J.M.A.**

Ikusirik J.B.S.C. jaunak eginiko eskaera, non Olatza baserriko Etxe-Azpiko sorotik, 3.643,01m2 segregatzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik **Olatza baserriko Etxe-Azpiko soroa** terrenoak ondorengo deskribapena duela:

*…2º.-El sembradío llamado "Etxe-azpiko-soro", confinante por Este y Sur, con una regata, por Oeste, con camino carretil público y con la misma casa Olazaga, y por el Norte, con la otra mitad de la heredad aplicada a la mitad Norte de dicha casería. Contiene ciento cinco áreas y dieciséis centiáreas de sembradío, setenta y dos áreas y ochenta y siete centiáreas de ribazos y manzanales.*

*Sobre este terreno pertenecido existe una construcción destinada a establo-almacén y cobertizos, en la parte baja del pertenecido "Etxe-azpiko-soro", del término municipal de Larraul, pertenecido de la Casería llamada Olozaga, número cinco del Cuartel del Norte. Tiene una superficie aproximada de trescientos noventa metros y noventa decímetros cuadrados (390,90m2), de los que aproximadamente noventa metros y noventa decímetros cuadrados ( 90,90m2) están ocupados por la construcción destinada a cobertizo y el resto, aproximadamente, trescientos metros cuadrados*

*(300m2), a establo –almacén. Esta construcción esta dividida por la mitad mediante un tabique medianil que se desarrolla en línea recta, desde la pared situada al noroeste y avanza hasta la situada al Sureste, atravesando, establo, almacén y cobertizo que quedan divididos en dos mitades de la misma superficie. Linda: por todos sus vientos con el terreno Etxe-azpiko-soro sobre el que ha sido construida.*

*Titulo: Pertenece a Don J.B.S.C., en virtud de escritura de compraventa otorgada ante el Notario de Tolosa, Doña María Valentina Montero Vilar, el día 8 de junio de dos mil once (número de orden de su protocolo 579)*

*Inscripción: Consta inscrita al Tomo 1251, libro 12, folio 158, finca número 137-N.*

*Ikusirik J.M.A. jaunak eginiko eskaera, non Azpiazu baserriko terrenoetatik, 6.922,09m2 segregatzeko baimena eskaera egiten duen.*

Ikusirik **Azpiazu baserriko terrenoen** deskribapena ondorengoa dela:

*Pertenecidos: El terreno que circunda la casa, confina al Norte, con terreno de D. Jorge Ignacio Irazu y de las caserías llamadas "Iturrieta-Sarobe" e "Iturrita Bitartea", "Behovide" y una regata; por Sur, con los de D. Joaquín Dorronsoro y D. Juan Ignacio Sagasti y de las caserías "Behovide" y "Larrañaga" y un arroyo: por Oriente, con camino carretil público y por Poniente, con la regata Sorondo; contiene con descuento de diez áreas de los caminos que la atraviesan, seiscientas setenta y cuatro áreas y treinta y dos centiáreas de las que cuatro áreas noventa centiáreas son de antepuertas y solar de una tejavana existente en la misma. Doscientas treinta y nueve áreas y veinticuatro centiáreas son de manzanal de "Echaburua", otras cuarenta y ocho áreas y setenta y cinco centiáreas son de herbales y ribazos, otras cien áreas son de hayedo peñascal y zarzal del punto de "Burrutizar" y las restantes doscientas setenta y tres áreas y treinta y tres centiáreas son de castañales del punto "Abaracú".*

*En las antepuertas existe una tejavana. Dentro de los límites de este terreno se haya un manzanal propio de la casería llamada "Olazaga", cuya superficie no se ha incluido en el terreno relacionado. El terreno hayedo llamado "Aranzadi", que confina por Norte, con terreno de la casería Aguirre: por Este, con el de José Cruz Irazu; por Sur, con los de las caserías Elícegui y Elizalde; y por Oeste, con el de Aguirezar, contiene cuarenta y siete áreas treinta y cuatro centiáreas. El terreno helechal liso llamado Lizarcelay-azpia que confina por Norte, con terreno de las caserías llamadas Goyeneta-barrena, por Sur, con el de Behovide, y por Oeste, con el de Elizalde, contiene sesenta y ocho áreas y veinte centiáreas.*

*Titulo.- Pertenece a Don J.M.A., en virtud de escritura de compraventa otorgada ante la Notario de Tolosa, Doña María Valentina Montero Vilar, el día 8 de junio de dos mil once (número de orden de su protocolo 577)*

*Inscripción: Consta inscrita al Tomo 1620, libro 14; Folio 162; Finca 171.*

Ikusirik, Olazaga baserriko lurretatik 3.643,10m2 eta Azpiazu baserriko lurretatik 6.922,09m2 segregatu nahi direla, banatutako lur hauekin, 10.565,09ko lursail berri independiente bat sortu nahi delarik.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak 2013ko abenduaren 2an eginiko txostenean dioena:

***"LARRAULGO OLAZAGA ETA AZPIAZU BASERRIEI LOTURIKO LURREN SEGREGAZIO ETA ONDOREN LURSAIL BERRI BATEAN ELKARTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA***

*J.B.S.C.I. eta J.M.A.A. jaunek, Larraulgo Olazaga eta Azpiazu baserriei loturiko lur zati bana segregatu eta ondoren elkartzeko baimena eskatzen dute lursail berri bat sortzeko asmoz.*
*Honetarako, egin nahi den segregazio eta ondorengo agregazioaren memoria deskribatzaile bat aurkezten dute, lursailen forma grafikoa azaltzen duen plano batekin batera. Aurreko dokumentazioa ikusirik,* **ZERA ADIERAZTEN DUT***:*

*Olazaga baserriko lurrak, J.B.S.C. eta M.J.U. senar-emaztearenak dira eta Azpiazu baserriko lurrak, J.M.A.A. Lursail guzi hauek Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokaturik daude.*

*Aurkezten den dokumentazioan, Olazaga baserriko lurretatik 3.643,10m2 eta Azpiazu baserriko lurretatik 6.922,09m2 segregatu nahi direla esaten da.*
*Banatutako lur hauekin, 10.565,09ko lursail berri independiente bat sortu nahi da.*

*Larraulgo hirigintza-erregimen hiritargarriezineko 55 artikuluak honela dio:*

*<u>Artículo 55.- Parcelaciones en el Suelo No Urbanizable</u>*

*La división o segregación de una finca rústica solo será válida cuando no dé lugar a parcelas de extensión inferior a la unidad mínima de cultivo, que en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, según establece el art. 7 del Decreto 168/1997, de 8 de julio, es de 1 Ha (10.000 m2).*

*……..*

*Cualquiera que sea el fin de las mismas, las parcelaciones deberán cumplimentar los siguientes requisitos:*

*-.siempre que estén vinculadas a usos de explotación agraria o forestales las parcelas resultantes podrán estar integradas por terrenos espacialmente discontinuos.*
*-.siempre que los terrenos afectados estén vinculados a otros usos, las parcelas resultantes deberán constituir un todo espacialmente continuo.*
*-.En edificaciones ya existentes y en la hipótesis de edificios autónomos residenciales (art.74) se permitirá la segregación de una parcela mínima de 10.000m2 (1 Ha) vinculada registralmente al edificio señalado, y siempre que el resto de la superficie de la parcela quede adscrita a otra explotación agraria con más de 1 Ha., o cumpla las condiciones de parcela mínima.*

*Lursail berriak 10.000m2 baino gehiagoko azalera du eta aurreko puntua betetzen denez, egokia ikusten dut segregazio baimena ematea."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.B.S.C. jaunak eginiko eskaera, hau da, Olatza baserriko Etxe-Azpiko sorotik, 3.643,01m2 segregatzeko baimena eskaera onestea.

BIGARRENA.- J.M.A. jaunak eginiko eskaera, hau da, Azpiazu baserriko terrenoetatik, 6.922,09m2 segregatzeko baimena eskaera onestea.

HIRUGARRENA.- Segregatutako 3.643,10m2 eta 6.922,09m2 lur hauekin, 10.565,09ko lursail berri independiente bat sortzeko baimena eskaera onestea.

LAUGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

BOSTGARRENA.-Erabaki honen berri interesatuei ematea.

***LAUGARREN PUNTUA***
**M.C.G. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2013ko azaroaren 14an, M.C.G. andreak eginiko idatzian eskatu zituela, enpleguaren sustapenerako Larraulgo herriak, azken urteetan eginiko kontratuetako aukeraketaren informazioa. Ondorengo informazioa eman zitzaiolarik: Ze irizpideen arabera egin zen aukeraketa eta hautagaiek izan zuten puntuaketa orokorra.

Ikusirik M.C.G. andreak, 2013ko azaroaren 28an eginiko idatzian eskatzen duela, aurrez udalak emandako dokumentazioan, hau da, puntuaketa orokorra eman zitzaiola, eta irizpideen arabera puntuaketa desglosatua nahi duela.

Ikusirik M.C.G. andreak 2013ko azaroaren 28an eginiko eskaeran, abenduaren 13ko, 15/1999 Datuen Babeserako Lege Organikoan arautzen dena urratzen dela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

BAKARRA.- M.C.G. andreari jakinaraztea, 2013ko azaroaren 28an eginiko idatzian, eskatzen duen dokumentazioa ezin zaiola eman.

***BOSTGARREN PUNTUA***

**URBELTZ AUZOKO 39 ESKUBIAN TERRAZAKO ERREPIDE ALDEAN DAGOEN BERJA IGOTZEKO BAIMENA ESKAERA, I.B.**

Ikusirik I.B. jaunak eginiko eskaera, non Urbeltz auzoa 39 eskubian, terrazan, errepide aldean dagoen hesia 50 zm igotzeko obra baimena eskaera egiten duela, guztira itxiturak, legeak zehazten duen 1,5 metro izango dituelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Igor Barandiaran zinegotziaren abstentzioarekin, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- I.B. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Urbeltz auzoa 39 eskubian, errepide aldean dagoen hesia 50 zm igotzeko obra baimena ematea. Bertako bizilagun guztiak obra hau egiten badute politagoa geldituko dela jakitera ematen delarik.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

***SEIGARREN PUNTUA***

**2013KO AZAROAREN 19KO 41/2013 FORU DEKRETUAREN BABESEAN, TOKIKO ENPLEGU PLANARI LAGUNTZA GEHIGARRIA EMATEKO PROGRAMAN SARTZEKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2013ko azaroaren 19ko 41/2013 Foru Dekretua, tokiko enplegu planari laguntza gehigarria emateko programa kudeatzeko baldintzak arautzen dituena argitaratu dela.

Ikusirik Larraulgo Udalari goian aipaturiko programa horretan 7.500 euro esleitu zaizkiola, Larraulgo Udala bere interesa azaltzen duelarik.

Ikusirik Larraulgo Udalak enplegua bultzatzeko programa horretan parte hartzeko, II. Eranskina eta ziurtagiri bat aurkeztu behar dituela, azken hau, eskaeraren xede den programa onartzeko eskumena duen udal organoak hartutako erabakia izan behar duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2013ko azaroaren 19ko 41/2013 Foru Dekretuaren babesean, tokiko enplegu planari laguntza gehigarria emateko programan sartzeko onespena ematea, dagokion diru-laguntza eginez.

"Herrilan eta instalazio publikoak mantentzeko zerbitzuak, eraikin publikoak eraberritzeko lanak egitea, eremu hondatuak lehengoratzeko jarduerak eta berriz hiritartzeko lanak egiteko" pertsona bat kontratatu nahiko delarik emandako diru-laguntzarekin.

***ZAZPIGARREN PUNTUA***

**2013KO AZAROAREN 19KO 40/2013 FORU DEKRETUAREN BABESEAN, TOKIKO EKONOMIAK DINAMIZATZEKO, TOKIKO INBERTSIOAK BULTZATZEKO PLANEAN SARTZEKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2013ko azaroaren 19ko 40/2013 Foru Dekretua, tokiko ekonomiak dinamizatzeko, tokiko inbertsioak bultzatzeko Planaren barruan, Gipuzkoako udalei laguntzeko programa kudeatzeko baldintzak arautzen dituena argitaratu dela.

Ikusirik Larraulgo Udalari goian aipaturiko programa horretan 27.160 euro esleitu zaizkiola, Larraulgo Udalak hauek jasotzeko, bere interesa azaltzen duelarik.

Ikusirik Larraulgo Udalak inbertsioak bultzatzeko planean sartzeko, II. Eranskina eta ziurtagiri bat aurkeztu behar dituela, azken hau, eskaeraren xede den programa honetan sartzeko, eskumena duen udal organoak hartutako erabakia izan behar duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2013ko azaroaren 19ko 40/2013 Foru Dekretuaren babesean, tokiko ekonomiak dinamizatzeko, tokiko inbertsioak bultzatzeko programan sartzeko onespena ematea, dagokion diru-laguntza eginez.

***ZORTZIGARREN PUNTUA***
**ERNIOZALE KULTUR ELKARTEAK, 2012 URTEAN ANTOLATUTAKO ZORTZI HERRIEN ARTEKO IBILALDIARI DAGOKION KITAPENAREN ONESPENA, HALA DADA**

Ikusirik Erniozaleak kultur Elkarteak aurkezturiko, 2012an egindako mendi ibilaldiaren, diru-kontuen kitapena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Erniozaleak Kultur Elkarteak aurkezturiko, 2012 urtean egindako mendi ibilaldiaren, diru-kontuen kitapena onestea. Ondorengoa izanik:

-Sarrerak: 12.000,46€
-Gastuak: 8.606,27€
-Soberan gelditzen dena hurrengo ibilaldietarako: 3.394,19€

***BEDERATZIGARREN PUNTUA***
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

| | |
|---|---|
| SETALDE | 48,01 |
| GARAJE EKIN, S.L. | 91,96 |
| CDI INFORMATICA | 23,76 |
| TOLOSALDEA GARATZEN | 240,00 |
| EUSKAL HARRIA | 544,50 |
| ULAHI-ORONA | 167,50 |
| LIDOINSA | 967,40 |
| GARAJE EKIN | 11,62 |
| FERRETERIA BARBE | 109,98 |
| GAS NATURAL FENOSA | 82,34 |
| GAS NATURAL FENOSA | 228,69 |
| GAS NATURAL FENOSA | 34,22 |
| GAS NATURAL FENOSA | 81,30 |
| GAS NATURAL FENOSA | 31,97 |
| GAS NATURAL FENOSA | 295,83 |
| GAS NATURAL FENOSA | 256,11 |
| GAS NATURAL FENOSA | 183,99 |
| GAS NATURAL FENOSA | 52,07 |

| | |
|---|---|
| GAS NATURAL FENOSA | 115,31 |
| GAS NATURAL FENOSA | 213,21 |
| GAS NATURAL FENOSA | 53,81 |
| GAS NATURAL FENOSA | 226,05 |
| GAS NATURAL FENOSA | 345,82 |
| GAS NATURAL FENOSA | 219,02 |
| GAS NATURAL FENOSA | 118,06 |
| GAS NATURAL FENOSA | 257,95 |
| REPSOL | 48,45 |
| MOVISTAR | 83,21 |
| MOVISTAR | 59,84 |
| MOVISTAR | 19,29 |
| MOVISTAR | 132,88 |
| MOVISTAR | 17,40 |

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **5.361,55** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

***HAMARGARREN PUNTUA***
**BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

***HAMAIKAGARREN PUNTUA***
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA